



2023/2024 denboraldia

20. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO KADETEEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1.KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA

- 1 ANTIGUOKO K.E.
- 2 INTXAURDI K.E.
- 3 AÑORGA K.K.E
- 4 OIARTZUN K.E.
- 5 MARIÑO C.D.
- 6 TOURING KE
- 7 TOLOSA C.F.
- 8 AIZTONDO N.K.K.
- 9 ZARAUTZ K.E.
- 10 SANTO TOMAS LIZEOA

GRUPO 2 MULTZOA

- 1 EIBAR S.A.D.
- 2 ALOÑA MENDI K.E.
- 3 GOIERRI GORRI F.K.
- 4 ZUMAIAKO F.T.
- 5 ANAITASUNA C.D.
- 6 MARTUTENE KE
- 7 UROLA SD
- 8 ELGOIBAR C.D.
- 9 EUSKALDUNA SD
- 10 REAL SOCIEDAD SAD

Ondorengo ekipoek, Amaikak Bat KE-k, Leintz Arizmendi Ibarrek, Ilintxa SD-k eta Mutriku FT-k, Emakumezkoen Kadete Ohorezko Mailan jolasteari uko egin ondoren, libre geratu diren plazak onela bete dira:

Zirkularretan agertzen diren xedapen orokorrak jarraituaz, egon diren uko egiteak kontuan izanik, Martutene KE-k, Urola KE-k eta Euskalduna SD-k jokatuko dute Emakumezkoen Ohorezko Kadete Mailan. Plaza bat libre geratu ostean eta Emakumezkoen Kadete Lehen Mailako talde guztiek plazari uko egin ondoren, Emakumezkoen Kadete Lehen Mailan izen-eman duten talde berriei eskeini zaie, Real Sociedad SAD izanik interes irmoa erakutsi duen bakarra.



2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa 19 taldek osatzen dute 2 multzotan banatuta. Bi fasetan jokatuko da: lehenengoa itzuli batera jokatuko da (9 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

Bigarren fasea honela banatzen da:

A. Txapeldunen Fasea

Lehenengo bost sailkatuek jokatuko dute Txapeldunen Fasea (5x2=10) bi itzulietara (18 jardunaldi).

Lehenengo postuan amaitzen duen taldea izango da kategoriako txapelduna.

B. Gipuzkoako Kopa eta Mailari eusteko fasea

Gainontzeko 10 taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute bi itzulietara (18 jardunaldi).

Lehenengo postuan amaitzen duen taldea izango da Gipuzkoako Kopako txapelduna.

Kadeteen 1. Mailara jaitsiko dira azken 4 sailkatuak.

3. ADINAK

Txapelketa honetan 2007, 2008 eta 2009 urtean jaiotakoek har dezakete parte.

4. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FF" lizentzietan dagozkienak; azken kasu horretan, **15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda** dauden "FJ" eta "FF" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.

5. INFANTIL MAILAKO JOKALARIEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Bigarren urteko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.



- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten. 6. Zirkularrean ikus daitekeen bezala, ondorengo onartzen da:

Emakumezkoen Infantil F-11 mailako lehiaketetan jokatzen duten jokalariai Ohorezko Kadete Mailan jokatzea baimenduko da soilik udalerriko klub bakarra bada eta klubak Lehenengo Kadete mailako talderik ez badu.

Gehienez, infantil mailako 4 jokalaria baimentzen dira edo 18 jokalariko gutxienekoa osatu artekoak eta hurrak lehiaketa honi dagozkion irizpide teknikoak baldin baditu (kirol-ezaugarriak).

Helburua Infantil mailako lehiaketari lehenetasuna ematea da eta jokalaria faltan izanez gero kadeteetan jokalariren bat izateko aukera izatea.

- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

6. BALOIA

Baloia 5 zenbakiduna izango da.

7. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, zazpi aldaketa egin ahalko dira gehienez 5 leihotan eta gehienez zazpi ordezeko egongo dira aulkian.

8. XEDAPEN OROKORRA

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorrean honako gai hauei buruz ezarritako akordioari eusten zaio:

- 1) Ohorezko Kadete Mailan "koltxoi" kategoriari eustea.
- 2) Ohorezko Kadete Mailan sortzen diren plaza hutsak txandaka betetzea, hurrenkera honetan:
 - a) Kadeteen Lehen Mailatik igotzeko eskubidea lehenetsiz. Eskubide horri uko eginez gero,
 - b) puntuarekin jarraituko da.



- b) Kadeteen Ohorezko Mailatik jaitsitako ondoen sailkatu den taldea ez jaitea. Eskubide horri uko eginez gero, hurrengo puntuarekin jarraituko da.
- c) Eta horrela, hurrenez hurren.

Bi multzotan edo gehiagotan osatzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak sailkapen postu bera bete duten taldeen artean jokatu dira. Hau da, lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak eta horrela, hurrenez hurren, beste multzoko sailkapen postu bera betetzen duten taldeekin jokatu lituzke partidak.

9. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.


10. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko irailaren 22a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General